

# EGIN KONTU! AURREKONTU FEMINISTEN GARAIA DA

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) aurrekontuen eztabaidea pil-pilean delarik heldu zaigu aurtengo martxoaren 8a. Martxoaren 8ko egunean, urtero, emakumeok gure bizitzaren esparru ezberdinetan oraindik ere pairatzen ditugun diskriminazio eta biolentzia egoerak salatzen ditugu eta dei egiten diegu instituzio zein agintari politikoei, egoera iraultzea ekarriko duten lege, politika eta neurri ausart eta feministak praktikan jar ditzaten.

Aurten, aukera ezin hobea dute, borondate politikoarekin, emakumeok pairatzen dugun egiturazko diskriminazioari aurre egiteko neurri praktiko eta gauzagarriak martxan jartzeko, orain aurkeztu behar baititu Eusko Jaurlaritzak EAErako aurrekontuak. Aurrekontu publikoak, izatez, herritarrengandik erabat urrun geratzen den diru sarrera eta gastuen txosten tekniko huts bat baino zerbait gehiago dira. Aurrekontuak erabaki politikoak dira, diru publikoa zertan eta nola gastatuko den zehazten dute, hau da, eraiki nahi den jendarte ereduaren definizio argia dira. Era berean, aurrekontuak dira herri batek bere aberastasunaren banaketarako duen bitarteko edo tresnarik garrantzitsuena. Eta esan beharrik ez dago, soiliik aberastasunaren banaketa justu, orekatu eta etiko batek bermatu ditzakeela herritar guztientzako bizi baldintza duinak.

**Aurrekontu feministak nahi ditugu.** Bizitzaren sostengarritasuna erdigunean jarri, pertsonen behar zein interesak babestu eta bermatu, eta bizitzaren prekarizazioari aurre egitea ahalbideturako duten aurrekontuak behar eta nahi ditugu.

## • ABERASTASUNA BANATU

- Politika fiskal berria eskatzen dugu, gehiago dutenek gehiago ordain dezaten.
- Prekariatate eta pobreziaren kontrako babes plan integrala: emakumeon egoera irauli ahal izateko neurri eta estrategia zehatzak barnebilduz, pobrezia emakume aurpegia izateari utz diezaion.
- 1.200 euroko gutxieneko soldata.
- RGI eta gainerako laguntzetan emandako murrizketak ba-

liogabetu, eta gizarte babesak handitzeko neurriak. Are gehiago, enplegu bat izan arren, prestazio sozialak jaso behar dituztenen kopurua etengabe igotzen ari den honetan.

- Etxebitzitza publikoen gizarte sarea: Etxebitzaren legeak bermatzen duen etxebitzzarako eskubide subjektiboa salbuespenik gabe bete dadin.

## • LANA BANATU

- 35 orduko lan astea: oro har lanaldia murrizteak guztioi gure zaintza lan eta ardurei modu korresponsablean erantzutea ahalbideratuko digulako; bestalde, emakume askoren kasuan 35 orduko lan astea bermatzea ere bada lanaldi partzial inposatuekin bukatzen neurri bat.

- Lanaren ikuspegi integralari erreparatuko dion erantzunkidetasun eta kontzilazio legea:

- Zaintza lanen banaketa orekatu eta erantzunkidea bermatuko dituzten neurriak, erantzunkidetasun laborala eta familiarra modu paritarioan sustatzea ahalbideratzen neurriak.

- Bizitzaren zaintza zikloei modu egokian erantzungo dion zerbitzu soziokomunitarioetako sare bat eraikitzea.

## • BOLVENTZIA MATXISTAREKIN AMAITU

- Biolentzia matxitaren aurkako lege integrala: integrala, eragin eremu edo esparruak anitzak direlako (babesa, bitartekoak, hezkuntza, komunikabideak...) zein administrazio ezberdinaren arteko jarduera koordinatua beharrezkoa duelako.

- Ikastetxe eta institutu guztietan ezarri beharreko hezkidetza plana, baliabide tekniko zein ekonomikoak aurreikusiko dituena.

Aurtengo martxoaren 8an, beraz, Eusko Jaurlaritzak, eta bide batez, agintari politikoek, aukera dute urteroko diskurtso instituzional formal eta hutsaletatik benetako praktika eta neurri ausart feministetara urratsa emateko. Erabaki egin behar dute emakumeen bidelagun izan nahi duten ala emakumeoi iruzur berri bat egiteko prest dauden. Guk, emakumeok, ez dugu iruzur beririk onartuko.

# EGIN KONTU! AURREKONTU FEMINISTEN GARAIA DA

El 8 de marzo llega con el debate presupuestario de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) en plena ebullición. Cada 8 de marzo denunciamos las situaciones de discriminación y violencia que sufrimos las mujeres en diferentes ámbitos de nuestra vida, al tiempo que hacemos un llamamiento a las instituciones y a los dirigentes políticos para que pongan en práctica leyes, políticas y medidas valientes y feministas con objeto de cambiar la situación de raíz.

Tienen este año una oportunidad inmejorable para poner en marcha medidas prácticas y factibles que hagan frente a la discriminación estructural que padecemos las mujeres. Bastaría con tener voluntad política, ahora que el Gobierno Vasco está a punto de presentar los presupuestos para la CAV. Las cuentas públicas son, en esencia, algo más que un informe técnico sobre ingresos y gastos que se elabora lejos de la ciudadanía. Los presupuestos son decisiones políticas. Sirven para concretar cómo y en qué se va a invertir el dinero público; en una palabra, se trata de una definición muy significativa del modelo de sociedad que se quiere construir. Asimismo, los presupuestos son el instrumento más importante de un país a la hora de repartir su riqueza. Huelga decir que solo se pueden garantizar condiciones de vida dignas para todas y todos los ciudadanos a través de un reparto justo, equilibrado y ético de la riqueza.

**Queremos presupuestos feministas.** Queremos y necesitamos presupuestos que pongan la sostenibilidad de la vida en el centro, protejan y garanticen las necesidades y los intereses de las personas y permitan hacer frente a la precarización de la vida.

## • REPARTO DE RIQUEZA:

- Pedimos una nueva política fiscal en la que paguen más los que más tienen.
- Plan integral contra la precariedad y la pobreza: la pobreza debe dejar de tener nombre de mujer, por lo que se han de recoger medidas y estrategias concretas que sirvan para revertir la situación.
- Salario mínimo de 1.200 euros.
- Revocar los recortes aplicados en la RGI y demás ayudas

y adoptar medidas para fortalecer la protección social; más si cabe en estos tiempos en los que el número de personas que necesitan prestaciones sociales aumenta sin cesar, pese a tener un empleo.

- Red social de vivienda pública: se debe cumplir, sin excepciones, el derecho subjetivo de vivienda garantizado en la propia ley de vivienda.

## • REPARTO DEL TRABAJO:

- Jornada laboral semanal de 35 horas: en general, la reducción de la jornada laboral nos permitirá responder de forma corresponsable a nuestras responsabilidades y labores de cuidado; por otro lado, la jornada semanal de 35 horas también es una forma de acabar con las jornadas parciales impuestas a muchas mujeres.

- Ley de responsabilidad y conciliación que vele por la visión integral del trabajo:

- Medidas que garanticen el reparto equilibrado y responsable de las labores de cuidado, medidas que promuevan la responsabilidad laboral y familiar de forma paritaria.

- Configuración de una red de servicio sociocomunitario que responda de forma adecuada a los ciclos de cuidado de la vida.

## • ACABAR CON LA VIOLENCIA MACHISTA

- Ley integral contra la violencia machista: integral, porque los ámbitos de acción son diversos (apoyo, medios, educación, medios de comunicación...), al tiempo que requiere de coordinación entre las diferentes administraciones.

- Plan educativo a implantar en todos los centros escolares e institutos, dotado de recursos técnicos y económicos.

Por lo tanto, con la llegada del 8 de marzo, el Gobierno Vasco y los dirigentes políticos tienen este año la oportunidad de pasar del discurso formal y vacío de todos los años a dar pasos valientes en forma de medidas prácticas y feministas. Deben decidir entre recorrer ese camino junto a las mujeres o volver a defraudarlas. Nosotras, las mujeres, no vamos a aceptar otro fraude.